



Asier Amezagaga, Arestiren inguruan idatzi duen saiakera liburua eskuetan, atzo, Donostian. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Arestiren poema hezur-haragizkoak

Bere doktore tesia oinarri, 'Inor ez delako profeta bere mende' saiakera idatzi du Asier Amezagaga • Idazlearen oihartzunak gaur egungo gizartean kokatzeko «jolasa» egin du egileak liburuan

Ainhoa Sarasola Donostia

Harritik herrira, Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean, 1954-2014 tesiaren egilea da Asier Amezagaga (Getxo, Bizkaia, 1986) soziologiako doktorea. Ikerketa hartan oinarrituta, saiakera liburu bat ondu du, *Inor ez delako profeta bere mende*, en,

Bilboko Udalak banatzen duen XVIII. Miguel de Unamuno saria irabazi zuena iaz, eta orain Erein argitaletxeak plazaratu duena. Lan berrian «ariketa bat» egin duela azaldu du, «jolas» ere deitu duena. Adierazi du ikerketan Arestiren eta bere poemen bila jardun zuela eta, hari horri jarraituz, liburuan zenbait gai landu di-

tuela, gaur egungo euskal gizartearen ikuspegi bat emateko. «Hasieran, asmoa zen Arestiren eragina aztertzea, baina, apurka-apurka, ikerketa prozesuan, Arestiren eragina baino gehiago, Aresti nola den eginaz aztertu dut. Poemen eta poetaren figuraren errepikak aztertu ditut». Aresti eta bere poetika gaur egun nola azaleratzen di-

ren, beste era batera esanda. «Inor ez da profeta bere mende» Arestiren poema labur eta sinetiko bat da, eta bere ahots profetiko hori gureru ekarri nahi izan dut; ahots horri gorpuzta eman nahi izan diot, nolabait, eta gorpuzta eman diot bere izena eta poemak errepikatu, aipatu, erabili, azaleratu diren une eta gune ezberdinen bidez».

Liburuko atalak segidan irakurtzea gomendatzen badu ere, baina, solte ere har daitezkeela azaldu du Amezagaga, bakoitzean une eta gune ezberdinak lantzen baititu. «Dela *Nire aitaren etxea* poema, dela *Euskal Harria*, euskara bera, Arantzazu, Bilbo... Halako gaiak jorratzen ditu liburuak. Azken batean, asmoa da aztertzea zelan egin dugun poesia hezur-haragiz-

ikerketagai, hala nola *Nire aitaren etxea* ezaguna. «Poema hori, [Ernesto] Laclau eta [Chantal] Mouf-fek, populismoaren gainean egiten duten gogoetan, *adierazle higitza* gisa aztertzen dute; adierazle higitza da errepikatu egiten den adierazle bat delako, baina segun eta nork, nola eta zein testuingurutan errepikatzen den, esangura bat edo beste izan dezake». Poema hori aztertzen duen atalean egileak aipatzen duenez, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenaren harira «toki batean eta bestean poema etengabe» agertzen zela ikusi zuen, eta «poemaren irakurketen bitartez euskal nazionalismoaren barruan egon zen hegemonia norgehiagoka» uler daitezkeela.

Liburuaren beste dimentsioetako bat, Amezagaren iritziz, Arestiren eta Bilbo hiriarren arteko loturei dagokiena litzateke. Bi ardatz ditu, poemen bidez, lotura horiek aztertzen dituen atalak: Euskalduna ontziazaren itxiera eta Guggenheim museoaren irekiera. Lehenari dagokionez, esan



Poemak nola gorpuzten diren aztertu nahi nuen, poemen errepiketan, omenaldietan... Aresti biziarazten dugulako»

Asier Amezagaga
Soziologoa eta idazlea

ko». Azken urteotan idazleari egin zaizkion omenaldiak izan daitezke azaleratze une edo gune horietako batzuk. «Alde horretatik, nik poemak nola gorpuzten diren aztertu nahi nuen, nola biziarazten den Aresti; azken batean, horrelako omenaldietan, poemen errepiketan, kantaldietan... biziarazten dugun poeta delako».

Egilearen ustez, «Aresti madarikatua, Aresti espainolista, Aresti komunista... euskal kulturako totem» bihurtu da, eta totem gisa ere aztertu du liburuan, «literaturarekin osatzen dugun harremana liburuaz harago doalako, badaguelako nolabaiteko harreman magiko bat, ia xamanikoa, zeinetan omenaldiak eskaintzen zaizkion une horietan nolabaiteko erritual batzuk jarraitzen diren. Bilboko Udalaren sariak dira horren lekuko: Unamuno, Blas de Otero eta Aresti sariak».

Poema zehatzak eta Bilbo

Atalez atal, Arestirekin harremana duten hainbat gai jorratu ditu Amezagaga. Euskara batuaren inguruko eta, zehazki, hizkiaren gaineko duela 50 urteko eztabaida du mintzagai, besteak beste, *Euskal kulturaren haratusteaz* izeneko atalak. Amezagaga: «Nik uste dut h-aren kontuak islatzen duela zenbateraino egokitu zitzaion euskararen modernizazioa literatura-ri». Beste atal batzuetan, Arestiren poema jakin batzuk ere hartu ditu

du une horretatik aurrera Aresti *Zorrotzako portuan aldarrika* eta halako poemekin ekarri izan dela gogora. Guggenheim museoari dagokionez, Amezagaren ustez, «Aresti hor, euskal kulturako totem bat izateaz gain, *brand* bat, marka irudi bat bihurtzen da; ez da Guggenheimen pareko, ez du turistarik ekartzen, baina nolabaiteko konpentsazio sinboliko bat ematen da Guggenheimen eta Aresti, Unamuno eta Oteroren artean».

Tesia jasotakoak «leunduz», lan dibulgatzaileagoa eta «oso interesgarria» osatu du Amezagaga. Iñaki Aldekoa Erein argitaletxeako editorearen iritziz –Arestiri buruzko tesia egin zuen berak ere–. «Arestiren alderdi asko aztertzen ditu, bai literarioa, noski, bai bere bizitza eta ibilbide politiko gatazkatsua, bere bilakaera, lagunak, kontrarioak... Bazituen lagunak, baina beste jende askok bizkarra eman zion, baita berak asko maitatu zuten ere». Liburuak egiten duen ekarpenik interesgarrienetako bat, Aldekoaren ustez, ausia ikuspegi soziologikorik aztertzea da, «musika mundutik, Bilboko Udaletik, hirigintzatik... Nola jasotzen, erabiltzen edo omentzen den, edo zein leku betetzen duen Arestik Bilbon gaur egun». Editorearen hitzetan, «garai batean mundu guztiak Arestiren kontra egin zuen, baina gaur egun mundu guztiak aldarrikatzen du».